

Merkataritza elektronikoaren bidezko salmentak, euskal enpresetan, 6.395 milioi euro izan ziren 2007an, %13,3 hazi direlarik

2007an %20an hazi zen merkataritza elektronikoa egiten duten euskal enpresen kopurua

Euskal AEko merkataritza elektronikoak eutsi egiten dio hazteari, bai zifra ekonomikoetan, bai egiten duten enpresa kopuruan, Eustaten datuen arabera. 2007an sarearen edo bestelako sistema elektronikoaren (e-maila, EDI, datu-truke elektronikoa, etab.) bidez sortutako negozio-bolumena 6.395,4 milioi eurora iritsi zen salmentetan, eta 3.102,4ra erosketetan.

Zifra horien arabera, 2006. urtearen aldean %13,3 gehitu ziren merkataritza elektronikoaren bidez egindako salmentak; erosketak, berriz, %17,2.

1. taula: Merkataritza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen, jarduera-adarraren eta enplegu-geruzaren arabera.

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2006	2007	%	2006	2007	%
C.A. de Euskadi	2.647,8	3.102,4	17,2	5.645,3	6.395,4	13,3
Lurralde historikoka						
Araba	551,5	642,1	16,4	2.718,1	3.022,3	11,2
Bizkaia	1.489,1	1.716,5	15,3	1.771,3	2.054,6	16,0
Gipuzkoa	607,2	743,8	22,5	1.155,9	1.318,5	14,1
Sektoreka						
Industria	1.361,1	1.527,0	12,2	3.784,6	4.366,4	15,4
Eraikuntza	4,3	25,3	-	14,8	44,8	-
Zerbitzuak	1.282,4	1.550,1	20,9	1.845,9	1.984,2	7,5
Enplegu-geruzaka						
0tik 9rakoak	769,5	882,3	14,7	678,4	641,6	-5,4
10 eta gehiagokoak	1.878,3	2.220,1	18,2	4.966,9	5.753,8	15,8

* Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat

Balio absolutuetan, herrialdeka Bizkaia erosketetan eta Araba salmentetan nabarmentzen dira; jarduera adarren arabera industria eta zerbitzuak gailentzen zaizkigu erosketetan, eta salmentetan industria nabarmen gainerakoaren artean. Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merkataritza elektronikoaren erabileran.

Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresen portzentajea %15,3 da, 2007an %20 hazi delarik. Proportzio horren osagai nagusia erosketak egiten dituzten enpresak dira, %14,1; izan ere, salmentak egiten dituztenak askoz gutxiago dira, %3,6.

Zifra ekonomikoetan salmenta elektronikoena erosketenaren oso gainetik dago, baina bide elektronikoetatik erosten duten enpresak saltzen dutenak baino askoz gehiago dira.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira							10 langile edo gehiago						
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: Eustat

Egindako kalkuluaren arabera, 29.500 bat dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egiten dituzten erosketek guztizko erosketen %20,7 hartzen dute eta salmentek guztizkoen %23,1.

Zifra hauek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartuz gero. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen artean, %24k egiten dute merkataritza elektronikoa. Segmentu honetan ere, erosketak egiten dituztenak askoz gehiago dira, %21,4; izan ere, salmenta egileak %7,8 dira.

1. grafikoa: 2007ko salmenta elektronikoa, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: Eustat

Salmenta elektronikorik egiteko erabili den bitartekoari dagokionez, %41,6k web orritik egin du, %36,1k posta elektronikorik (e-mail) bidez eta %22,3k EDI eta beste sare batzuen bidez. Salmentak horrela egin dira : %57,8 EDI eta beste sare batzuen bidez, %21,2 e-mailez eta %21,0 web orriaren bidez Salmenta elektronikoa egiten dituzten enpresen %26,1k on-line ordainketak jaso dituzte.

2007an merkataritza elektronikorik bidez egindako salmenten bezero-motari dagokionez, salmenta guztien %89,4, zatirik askogatik handiena, beste enpresa batzuetara saldu zen (B2B deritzon merkataritza), %9,6 kontsumitzailei partikularrei saldu zitzaizkien (B2C) eta gainerako %1ak bestelako helburuak izan zituzten, esaterako, administrazio publikoak (B2G).

2. grafikoa: 2007ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT

Azkenik, lau enpresatetik hiruk (%75,9k) merkataritza elektronikorik parte hartzeko zailtasunak dituztela diote. %58k haien produktu eta zerbitzuak desagokitzat dituzte Internet edo beste sare telematikorik baten bidez saltzeko, eta %36k uste du bezeroak ez daudela behar bezain prestatuak bide horiek erabiltzeko. %33,7k uste du kobraketa eta ordainketen gaineko ziurtasun arazoak badirela oraindik, eta %33,4ren ustez merkatu hori arautzen duten legeen, entrega epeen eta edozein arazoren aurrean eskainitako bermeen gainean ziurgabetasun handia dago. %29,3k garapen eta mantentze-kostu handiak ikusten dituzte, eta %28,3k plantilla txikia dela edo behar bezain prestatuta ez dagoela uste du.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronikorik: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

+Tlf:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp